

Tomás Aragüés Bernad



80 urteurrena
aniversario

~ Kursaal, 22/10/2015 ~

Euskadiko Orkestra | Orfeón Donostiarra | Easo Abesbatza | Andra Mari Abesbatza

Tomás Aragüés Bernad

80 urteurrena
aniversario

~ Kursaal, 22/10/2015 ~

Tomás Aragüés Bernad.

80. Urteurrena | **80 Aniversario**
omenaldi kontzertua | concierto homenaje

Urriaren 22 de octubre

Kursaal Auditorioa, Donostia / San Sebastián. 20:00h.

Egitaraua | Programa

Tomás Aragüés Bernad

I

Min Eresia

Sinfonía versus Ochenta. V. Te Deum

Andra Mari Abesbatza (José Antonio Pascual, zuzendaria/director)

Coro Easo Abesbatza (Xalbador Rallo, zuzendaria/director)

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Diego Martín Etxebarria, zuzendaria/director

II

Euskal Requiem

Ainhoa Zubillaga, altoa/alto

Xabier Anduaga, tenorra/tenor

Pablo Ruiz, baritonoa/barítono

Orfeón Donostiarra - Donostiako Orfeoia

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

José Antonio Sáinz Alfaro, zuzendaria/director

Tomás Aragüés Bernad

80 urteurrena
aniversario

~ Kursaal, 22/10/2015 ~

TOMÁS ARAGÜÉS BERNAD KONPOSITOREAREN OMENEZKO KONTZERTUA BERE 80. URTEBETETZEAN

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, Donostiako Orfeoiak, Andra Mari Abesbatzak, Easo Abesbatzak eta La Salle Anaidiak, beste hainbat erakunderen laguntzarekin, Tomás Aragüés Bernad konpositorearen omenez kontzertu bat antolatu dute, hark 80 urte betetzen dituen honetan. Euskal musika garaikideko sortzaile emankorrenetakoa dugun honi merezitako omenaldia eta eskertza adierazteko eskainiko den kontzertua urriaren 22 ostegunean izango da, Donostiako Kursaal Auditorioan, arratsaldeko 20:00etan.

Eszenatokian aipatu lau erakundeak bilduko dira. Diego Martin Etxebarria eta José Antonio Sáinz Alfaroren zuzendaritzapean, Aragüés Bernad maisuaren *Min eresia*, *Sinfonía versus ochenta* obrako *Te Deum* eta *Euskal Requema* interpretatuko dituzte, azken honetan Ainhoa Zubillaga, Xabier Anduaga eta Pablo Ruizen ahots bakarlariak lagun dituztela. Nabarmentzekoa da *Euskal Requemaren* bietako ahotsen abesbatzarako bertsioa estreinatuko dela eta *Sinfonía versus ochenta*, bere azken sinfoniaren azken zatia den *Te Deum*-aren erabateko estreinaldia izango dela. Tomás Aragüés Bernad berak bere obra nabarmen hauen interpretazioaz gozatzeko aukera izango du.

Tomás Aragüés Bernad Albalate del Arzobispon, Teruelen jaio zen 1935ean eta bost urterekin Barakaldora aldatu zen bere familiarekin. Beranduago, 1973an Donostian finkatu zuen bere bizilekua. Beraz, bizitza osoan izan du Euskal Herriarekiko lotura estua. Bere ibilbide luzean zehar, ekarpen nabarmena eginga du euskal musikaren alorrean, sortzaile, moldatzaile zein zuzendari gisa eta harreman emankorra izan du, eta egun ere badu, gure herriko musika alorreko eta orokorrean kultur erakunde ugariarekin.

Omenaldi-kontzertu hau antolatu duten erakundeekin duen harremanari dagokionez, laburbilduz: Tomás Aragüés Bernad Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen bigarren pertsona izan zen, 1982an, Enrique Jordá Maisuaren atzetik, Orkestraren lehen zuzendari gonbidatua izan zelarik; horretaz gain, berak zuzendu zuen Orkestraren lehenbiziko diskoa eta Orkestrak bere hainbat lan estreinatu du, horien artean omenaldian entzungai izango den *Euskal Requema*. Donostiako Orfeoiak, berriz, urteetan lankide izan ostean, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera urtero eskaini ohi duen saria eman zion 2002an. Easo Abesbatzaren kasuan, Aragüés Bernad Maisuak oso paper garrantzitsua bete du erakunde honen nondik norakoan, zuzendari izan baitzuen 1978tik 1986. urtera bitartean. Andra Mari Abesbatzari dagokionez, berriz, konpositoreak honekiko duen lotura Musikaste eta Eresbilen bitartekoa da; Musikasten, 1976an agertu zen estreinakoz Aragüés Bernaden izena eta ordutik bere zazpi musika-lan estreinatu dira Errenteriako Euskal Musikaren Astean; Eresbilen, aldiz, musikagile honen ia bostehun partitura daude jasota.

Sarrerak, dagoeneko eskuragarri Kurasaaleko leihatilan. Omenaldi-kontzertu honetarako sarrerak doakoak dira eta gaurtik eskuragarri daude Kurasaaleko leihatilan, asteartetik larunbatera, 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:00etara (2 sarrera pertsonako).

TOMÁS ARAGÜÉS BERNAD

Musikarien familia baten baitan hezitakoa, Tomás Aragüés Bernad, Euskal Herriko konpositore garaikide emankorrenetakoa dugu.

Albalate del Arzobispo-n, Teruelen jaio zen 1935. urteko urriaren 19an. Eta bost urte zituela, bere familia Barakaldora aldatu zen, bere aita bertako Udal Bandaren zuzendari izendatu baizuten. Gaztetxo zela, bere aitarengandik jaso zituen lehenbiziko musika-eskolak. Bilboko Kontserbatorioan izena emanda, Solfeo, Harmonia eta Konposizioan lehenbiziko sari ugari merezi izan zituen (1958).

Aurrerago nazioarte mailako hobekuntza ikastaroak egin zituen Konposizioaren alorrean: Compostelako Santiagon, Hans Haug eta Manuel Palau eta Accademia Musicale Chigiana de Siena delakoan Goffredo Petrassirekin (1967). La Salle Institutu erlijiosoan emandako garaian musika erlijiosoan espezializatu zen. Gregoriar Kantuan lizentzia eskuratu zuen eta hirurogeiko hamarraldian Musika Erlijiosoan irakasle izan zen Salamancako Pontifize Unibertsitatean. Aro hartan musika pastoral modeliko ugari sortu zuen, Salamancako Pontifize Unibertsitatearen menpeko San Pio X Pontifize Institutuaren ediziotan jaso. Vaticano II. Kontziliotik eratorritako berrikuntzei erantzuteko idatzitako musika dugu. Partitura guzti hauen artetik, bere *Misa en castellano* delakoa bereziki ezaguna bilakatu da eta espainol-hiztun diren herrialde guztietan abesten da

1972an Donostiako Udal Kontserbatorioan Solfeo eta Musikaren Teorikako katedra eskuratu zuen oposizio bidez. 1973. urtean, kargua hartzarekin batera donostian finkatu zuen bere bizilekua. 1981ean donostiar Kontserbatorioko Orkestra zuzendaritza katedra eskuratu zuen, hau ere oposizioz. Eta 1980 eta 1983 urte bitartean Kontserbatorioko zuzendaria izan zen. Donostiako Conjunto Barroko taldearen sortzaile, talde honen zuzendari izan zen 1977tik 1979ra. Halaber, Easo Abesbatzaren zuzendari izan zen 1977tik 1986ra, abesbatza honentzako hainbat obra konposatu zuelarik. 1980. urtean berrantolatutako Kontserbatorioko Orkestra abian jarri eta berau kontzertu-denboraldi finkotan zuzendu zuen 1993ko abendura arte.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak hastapenetan sarritan lankide izan zuen Tomás. Orkestraren podiumetik zuzendu zituen emanaldien artean bereziki aipagarriak dira 1983an G. Verdiren *Aida* opera kontzertu bertsioan, 1984ean José Olaizolaren *Oleskari zarra* eta Buenaventura Zapirainen *Txanton Piperrri* euskal operen kontzertu bertsioak. Euskadiko Orkestraren lehenbiziko diskoaren grabaketa ere zuzendu zuen; honetan berak orkestratutako hainbat euskal doinu biltzen ditu, horien artean Euskadiko Ereserkiaren bertsio ofiziala.

Bere lanik emankorrena konposizioaren alorrean egindakoa da. Musikagile goiztiarra izan zen eta egun ere ezohikoa da haren emankortasuna. Hamalau urte besterik ez zituela, bere bi lehenbiziko obrak idatzi zituen: lau bitariko ahotsetarako *Tantum Ergo* bat eta pianorako *Zortziko* bat. Tomás Aragüés Bernaden konpositore-lanak arrazoi ezberdinek eragindako gorabeherak izan ditu, bere bizitzaren egoera ezberdinek eraginadokok eta ekoizpen zabalago edo urriagoan edo musika-estetikaren nolakotasunean isla izan dutenak. Zentzu honetan, Goffredo Petrassiren ikasle gisa emandako aroa aipatu beharra dago; berak eraman baitzuen estilo aske atonalean sortutako musikaren esperientziara. Hala ere, ez da erraza bere sortzaile-ibilbidean aro zehatzak finkatzea, askatasun nabarmena erakutsi izan baitu beti. Musikaren genero zein forma oro landu du. Musika erlijioso pastoralaren alorrean ekarpen handia egin badu ere, are nabarmenagoa da abesbatza-musikarekiko duen grina, euskal abesbatza-musikarekiko bereziki, eta baita instrumentu musika sinfoniko edo sinfoniko-koralarekiko agertzen duena ere.

Era berean, Tomás Aragüés Bayarte (1903-1956) bere aitak 1946an idatzitako "*Sinite parvulos venire ad me*" *Meza* kontzerturako obra bilakatu zuen. Lan hau haren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko burutu zuen eta 2003ko Musikasten estreinatu zuten Andra Mari Abesbatzak eta Euskadiko Orkestrak. Donato Goyenecherekin lankidetzan, *Africa* poemaren bertsio sinfoniko-korala burutu du. Bestalde, duela gutxi amaitu du bere sorkuntzarik handinahiena: Loiolako San Ignazioaren irudia islatzen duen *Ignatius* opera (2009 – 2011).

Askotariko sarien artean, 2001ean Euskal Herriko Txistulari Elkartearen bere urrezko domina eman zion, 1984an Bilboko Orkestra Sinfonikoak Jose Ignazio Ansorena bakarlari zela estreinatutako bere *Txistu eta orkestrarako kontzertu*agatik esker onez. 2002 urtean Donostiako Orfeoia-EHU saria jaso zuen.

Tomás Aragüés Bernad

80 urteurrena
aniversario

~ Kursaal, 22/10/2015 ~

CONCIERTO EN HOMENAJE AL COMPOSITOR TOMÁS ARAGÜÉS BERNAD EN SU 80 ANIVERSARIO

Coincidiendo con el 80 aniversario del nacimiento del compositor Tomás Aragüés Bernad, la Orquesta Sinfónica de Euskadi, el Orfeón Donostiarra, la Coral Andra Mari, el Coro Easo y los Hermanos de La Salle han organizado, con el apoyo de diversas instituciones, un concierto en homenaje a este destacado compositor. Este acontecimiento musical se convertirá así en un merecido reconocimiento a uno de los compositores contemporáneos más prolíficos del País Vasco. Será el jueves 22 de octubre, en el Auditorio Kursaal de San Sebastián, a las 20:00 horas.

Sobre el escenario se darán cita las cuatro instituciones musicales organizadoras. Bajo la dirección de Diego Martín Etxebarria y José Antonio Sáinz Alfaro, interpretarán *Min eresia*, el *Te Deum* de la *Sinfonía versus ochenta* y *Euskal Requiem*, todas del Maestro Aragüés Bernad, y acompañados en esta última por las voces solistas de Ainhoa Zubillaga, Xabier Anduaga y Pablo Ruiz. Cabe mencionar que el día 22 se estrena la versión para coro de voces mixtas del *Euskal Requiem* y se realizará asimismo el estreno absoluto del *Te Deum*, la parte final de la sinfonía más reciente de Aragüés Bernad, *Sinfonía versus ochenta*. El propio Tomás Aragüés Bernad tendrá la oportunidad de disfrutar así de la interpretación de algunas de sus partituras más señeras.

Tomás Aragüés Bernad nació en Albalate del Arzobispo, Teruel, en 1935. Cuando contaba con cinco años se trasladó a Barakaldo con su familia. Más tarde, en 1973, estableció su residencia en San Sebastián. Así, a lo largo de toda su vida ha estado estrechamente vinculado al País Vasco. A lo largo de su extensa trayectoria ha realizado una importante aportación a la música vasca como compositor, arreglista y director, y ha establecido una nutrida red de relaciones con diversas instituciones musicales de nuestro país.

En lo referente a la relación con las instituciones que intervendrán en este concierto-homenaje, en resumen: en 1982 Tomás Aragüés Bernad fue la segunda persona que dirigió a la Orquesta Sinfónica de Euskadi tras el Maestro Enrique Jordá, convirtiéndose así en el primer director invitado de la Orquesta; además fue el director del primer disco de la OSE, que ha estrenado varias de sus obras, tal es el caso de *Euskal Requiem*, obra que se interpretará en el concierto-homenaje. El Orfeón Donostiarra, por su parte, tras años de colaboración le concedió en 2002 el premio que anualmente entrega junto a la Universidad del País Vasco. En el caso del Coro Easo, el Maestro Aragüés Bernad ha tenido un importante papel en el devenir de esta institución, ya que fue su director desde 1978 a 1986. En lo referente a la Coral Andra Mari, su vinculación con este compositor tiene su reflejo en Musikaste y Eresbil; en Musikaste, el nombre de Aragüés Bernad figura por primera vez en 1976 y desde entonces se han estrenado siete de sus obras en la Semana de la Música Vasca de Errenteria; En Eresbil se guardan cerca de quinientas partituras de Tomás Aragüés Bernad.

Las entradas, a partir de hoy jueves en la taquilla del Kursaal. Las entradas para este concierto-homenaje son gratuitas y se pueden retirar en la taquilla del Kursaal desde hoy mismo, de martes a sábado en horario de 11:30 a 13:30 y de 17:00 a 20:00 horas (2 entradas por persona).

TOMÁS ARAGÜÉS BERNAD

Educado en el seno de una familia de músicos, Tomás Aragüés Bernad, es uno de los compositores contemporáneos más prolíficos del País Vasco.

Nació en Albalate del Arzobispo (Teruel) el 19 de octubre de 1935 y cuando tenía cinco años su familia se trasladó a vivir a Barakaldo, donde su padre iba a ocupar el cargo de director de la Banda Municipal. Desde su infancia recibió de su padre las primeras lecciones musicales. Matriculado en el Conservatorio de Bilbao, su expediente está cubierto de Primeros Premios en Solfeo, Armonía y Composición (1958).

Más adelante asistió a Cursos Internacionales de perfeccionamiento en Composición: en Santiago de Compostela con Hans Haug y Manuel Palau y en la Accademia Musicale Chigiana de Siena con Goffredo Petrassi (1967). Durante sus años de permanencia en el Instituto religioso de La Salle se especializó en música religiosa. Adquirió la licenciatura de Canto Gregoriano y llegó a ser en la década de los años sesenta profesor de Música Sacra de la Universidad Pontificia de Salamanca. En este tiempo produjo un gran repertorio de música pastoral modélica, recogida en las ediciones del Instituto Pontificio San Pío X, adscrito a la Universidad Pontificia de Salamanca. Se trata de música escrita para cubrir la necesidad creada tras las innovaciones del Concilio Vaticano II. De todas estas partituras ha adquirido una popularidad especial su *Misa en castellano*, que se canta en todos los países de lengua hispana.

En 1972 obtuvo por oposición la Cátedra de Solfeo y Teoría de la Música en el Conservatorio Municipal de San Sebastián. Coincidiendo con la toma de posesión, fijó su residencia en la capital guipuzcoana en 1973. En 1981 ganó también por oposición la Cátedra de Dirección de Orquesta del Conservatorio donostiarra. Durante el trienio 1980-1983 desempeñó las funciones de director del Conservatorio. Fue director-fundador del Conjunto Barroco de San Sebastián de 1974 a 1979. También fue director del Coro Easo entre 1977 y 1986, para el que compuso diversas obras. Puso en marcha la reorganizada Orquesta del Conservatorio en 1980, a la que dirigió en temporadas regulares de conciertos hasta diciembre de 1993.

Colaboró asiduamente en los primeros años de la fundación de la Orquesta Sinfónica de Euskadi con intervenciones destacadas, como la dirección de la versión-concierto de la ópera *Aida* de G. Verdi en 1983 y el montaje de las óperas vascas *Oleskari Zarra* de José Olaizola en 1983 y *Txanton Piperrri* de Buenaventura Zapirain en versión-concierto en 1984. Dirigió igualmente la grabación del primer disco de la citada Orquesta, que recoge una serie de obras vascas, casi todas instrumentadas por él mismo, entre ellas la versión oficial del *Euskadiko Ereserkia*.

Su labor más fecunda se sitúa en el terreno de la composición. Ha sido un compositor precoz y sigue siendo un compositor de una fecundidad poco frecuente. Ya a los catorce años compuso sus dos primeras obras, un *Tantum Ergo* para 4 voces mixtas y un *Zortziko* para piano. Su tarea de compositor ha sufrido vaivenes de distinta naturaleza, impuestos por las circunstancias diferentes de su vida, reflejados en su mayor o menor producción, o en la naturaleza de su estética musical. En este sentido hay que destacar su periodo de estudio al lado de Goffredo Petrassi, que le llevó a sus experiencias de música en estilo libre atonal. Sin embargo no es fácil señalar en su línea de compositor etapas definidas, porque conserva una clara independencia personal. Ha ensayado todos los géneros de música y de formas musicales. Aunque haya realizado una gran aportación a la música religiosa pastoral, destaca más su pasión por la música coral, especialmente vasca, y por la música instrumental, especialmente sinfónica o sinfónico-coral.

Es autor asimismo de la transformación en obra de concierto de la Misa "Sinite parvulos venire ad me" (1946) de su padre Tomás Aragüés Bayarte (1903-1956). Este trabajo fue realizado para conmemorar el primer centenario de su nacimiento y fue estrenado en Musikaste 2003 por la Coral Andra Mari y la Orquesta de Euskadi. Ha colaborado con Donato Goyeneche en la versión sinfónico-coral del poema *África*. Recientemente acaba de concluir la composición de su obra más ambiciosa, la ópera *Ignatius*, sobre la figura estelar de San Ignacio de Loyola (2009 – 2011).

Medalla de Oro de la Asociación de Txistularis del País Vasco, 2001, en atención a su Concierto para Txistu y Orquesta estrenado en Musikaste de 1984 por la Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS) con Jose Ignazio Ansorena de solista. En 2002 obtuvo el Premio Orfeón Donostiarra-UPV/EHU.

Aipatu lanez gain, bere ekoizpena osatzen duten **laurehun obretik gorako**en artean, horietako asko argitaratzeko, aipatzekoak dira / Además de las obras ya mencionadas, de su producción, que puede estimarse en **más de cuatrocientas obras**, muchas de ellas inéditas, merece la pena citar:

- INMACULADA (Poema sinfónico-coral) 1958, revisada en 1986.
- SINFONÍA DEL EBRO (suite) 1961.
- GURE ETXEA (poema sinfónico-coral) 1963.
- RENACIMIENTO (suite) 1962. Versión revisada con el título de CUATRO DANZAS SINFONÍAS 1992.
- CONCIERTO PARA TROMPA Y ORQUESTA. Dos versiones: Orquesta de Cámara (1973); Gran Orquesta (1974).
- QUINTETO VASCO (quinteto de viento) 1975.
- BOST ELEIZ ERESI (poema sinfónico-coral). Dos versiones: Orquesta de Cámara (1977); Gran Orquesta (1979).
- QUASI UN RONDO. Dos versiones: Trompa y Piano (1979); Trompa y Orquesta (1986).
- SUITE ROMÁNTICA (Música para Ballet) 1982.
- MIN ERESIA (Marcha fúnebre para Gran Orquesta) 1983.
- CONCIERTO PARA TXISTU Y ORQUESTA (1984).
- TRIA AB UNO (Concierto para la familia de flautas traveseras y orquesta sinfónica) 1986.
- CUATRO ESPACIOS SINFÓNICOS (Suite de Concierto) 1984.
- CONCIERTO PARA VIOLÍN Y ORQUESTA (1988).
- CUARTETO MODAL (Cuarteto de Cuerda) 1989. Obra encargo de la 50 Quincena Musical Donostiarra.
- SUITE CLASICA (1977).
- KATTALIN TXIKI (cuento sinfónico) 1985.
- CHRISTMAS SUITE (1989).
- NAVIDAD (Coro y Orquesta), 1990.
- EUSKAL REQUIEM (1991).
- OBERTURA-FANTASÍA (Gran Banda) 1985.
- SINFONIETTA (para instrumento de percusión) 1996.
- JIMMY POTXOLO (Cuento sinfónico para orquesta y coro de niños) 1997.
- VITA (Poema sinfónico, encargo de la OSE) 1999.
- VIRGO DEI GENITRIX (Tríptico para Organo) 2002.
- SALMOS PARA UNA SINFONIA (1995-2004).
- BIDAI DOINUA (Seis canciones para Soprano y Orquesta (2005-2006).
- CONCIERTO DIAMANTINO (para Violoncello y Orquesta) (2008-2009).
- DE CONTRAPUNTOS Y AMABLES POLIFONIAS (2011).
- SINFONIA VERSUS OCHENTA (2012-2014).
- TE DEUM (Coro y Orquesta) 2014.

Konposizio sariak / Premios de Composición:

a) Música Coral:

- Concurso de Composición de Habaneras para masas corales en Torrevieja (Alicante) los años 1977 y 1978.
- Premio Nacional de Composición Coral sobre temas asturianos en los certámenes celebrados en Oviedo los años 1980 y 1981.
- Premio de Composición en el Concurso Internacional de Tolosa los años 1980, 1981, 1984 y 1985.

b) Obras Sinfónicas:

- Premio Internacional de Composición en Roma (1980) por el poema sinfónico coral "ANNUNCIATE LA PAROLA".
- Premio Internacional de Composición para Bandas Sinfónicas, convocado por el Ayuntamiento de Valencia por su obra "SUITE DE CONCIERTO", 1982.
- Premio Internacional de Composición en La Coruña (2004) por su cantata La torre de Hércules.